PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TECNICAS PARA EL SUMINISTRO DE UN VEHICULO HIBRIDO O HIBRIDO ENCHUFABLE PARA LA POLICIA LOCAL DE AMOREBIETA-ETXANO

1. OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del contrato a que se refiere este Pliego de Prescripciones Técnicas, es el suministro de un vehículo, en modalidad de Renting, tipo SUV, por un periodo de cuatro años, para el servicio de la Policía Local de Amorebieta-Etxano, Bizkaia.

2. CARACTERISTICAS TECNICAS DEL VEHICULO

a) Hibrido enchufable tipo SUV, rotulado conforme al modelo unificado para Euskadi y con puente de luces LED fijo, y habilitado para el transporte de detenidos.

b) Combustión de gasolina o diésel.

c) Transmisión automática.

d) Cilindrada igual o superior a 1.500 c.c.

e) Mínimo 130 CV de potencia.

f) Dirección asistida.

g) Aire acondicionado – Climatizador.

h) 4 puertas y portón trasero.

i) Volante regulable.

j) Faros antiniebla.

k) Airbags frontales, laterales y de cortina.

l) Detectores delanteros y traseros de ayuda al estacionamiento.

m) Bluetooth incorporado.

n) Toma de corriente auxiliar en habitáculo delantero y maletero.

o) Luces de circulación diurna con Tecnología LED.

p) En todo caso, se tratará de un vehículo de nueva matriculación.

3. EQUIPAMIENTO ADICIONAL: SEÑALIZACION ACUSTICO LUMINOSA

Puente tipo LED de color azul, destinado al uso exclusivo para servicios policiales.

Igualmente deberán instalarse focos de mínimo seis LED empotrados en la rejilla delantera, cuatro focos de seis LED empotrables, ubicados en las aletas (dos en las delanteras y dos en las traseras). Todos estos focos deberán ser en color azul.

Dos LED para el portón trasero que deberán activarse automáticamente con la apertura de éste. Deberán ser de color azul y poder desactivarse mediante botón instalado en la zona del portón trasero.

Dos linternas recargables de tipo LED, carga rápida, con sus correspondientes cargadores y conos de señalización en color amarillo. Los conos contarán con sus respectivos soportes.

4. OTRO EQUIPAMIENTO Y CARACTERÍSTICAS

- Refuerzos lumbares y/o modificación de los asientos delanteros, de forma que se adecúen a los elementos de dotación de los agentes, permitiendo el correcto apoyo de la zona lumbar teniendo en cuenta la equipación habitual de estos (cinturón y elementos de dotación).
- Cristales traseros con film negro.
- Instalación de equipo Tetra (antena, emisora, micrófono).
- Cubre-cárter.

En el vehículo deberá instalarse el **Kit de detenidos homologado**, con sistema de desagüe, sistema mecánico de desbloqueo de cinturones y tira de LED para iluminación en la zona de detenidos. Con el fin de no mezclar el aire del detenido con el de los agentes dispondrá de un sistema de ventilación de paso de aire forzado ubicado en el techo del vehículo con accionamiento desde la parte delantera del vehículo por medio de un interruptor ubicado en el salpicadero.

Este habitáculo precisará de un sistema mecánico de apertura de emergencia de las puertas, independiente para cada una de ellas.

El vehículo se entregará con un juego de lámparas y fusibles de repuesto y un juego de cadenas o similar para la nieve.

5. DISEÑO EXTERIOR

Pintura y adhesivos policiales. Color base blancos y respondiendo a los criterios establecidos en la Orden de Consejería de Seguridad del Gobierno Vasco, respecto a los distintivos externos de los vehículos de las policías locales de Euskadi. Además, llevaran el escudo de la Policía local de Amorebieta-Etxano y los teléfonos 946300160 y el 092.

El adjudicatario, deberá someter el diseño, a la autorización del Ayuntamiento con carácter previo a su ejecución.

6. SERVICIO DE MANTENIMIENTO

Deberá cubrir cualquier gasto de mantenimiento y reparaciones, y en concreto:

• Mantenimiento integral de los vehículos en los talleres oficiales de la marca, o taller autorizado por el fabricante (incluido coste de aceite, líquidos de frenos, filtros, etc. y mano de obra). El taller de referencia, deberá encontrarse en un radio máximo de 20 km de Amorebieta-Etxano.
• Sustitución de piezas desgastadas (piezas y mano de obra).
• Reparación de averías (piezas y mano de obra).
• Repuestos.
• Mano de obra.
• Lubricantes.
• Cambio de neumáticos (cada 40.000 km).
• En caso de tener que pasar revisión de la Inspección Técnica de Vehículos (ITV), en cualquiera de los supuestos, deberá efectuarse por cuenta del adjudicatario, tanto las gestiones del servicio como los gastos ocasionados con motivo de la misma.

Debido a las características y especial equipamiento de los vehículos, la Jefatura de la Policía Local, en función de las necesidades, podrá solicitar los vehículos de sustitución en 24 horas o en el primer día laborable siguiente (en caso de coincidir con festivos), por avería mecánica o reparación de carrocería. En este caso, los vehículos serán de características similares, pudiendo exceptuarse las instalaciones de equipos de transmisión, sirenas, megafonía, señalización óptico-acústica de emergencia, linternas, lunas anti vandálicas e identificación corporativa.

7. KILOMETRAJE

Se contratará un kilometraje anual, de 30.000 kilómetros, que será susceptible de

ampliación, de acuerdo con lo establecido en el pliego de cláusulas administrativas.

8. SEGURO A OFERTAR

Seguro a todo riesgo del automóvil, cerrado y sin franquicia con al menos las siguientes coberturas:

- Responsabilidad Civil de Suscripción Obligatoria.
- Defensa jurídica y reclamación de daños: ilimitada con abogados y procuradores de la compañía y hasta 3.010,00 € en caso de libre designación.
- Seguro de accidentes para el conductor del vehículo asegurado: 42.500,00 € para las coberturas de fallecimiento y 30.500,00 € para invalidez permanente. Beneficiario en caso de muerte: los herederos legales de la persona fallecida. Asistencia médica hasta 30.500,00 € (máximo 365 días).
- Robo del vehículo.
- Incendio del vehículo.
- Rotura de Parabrisas y Lunas.
- Asistencia en viajes, desde el kilómetro cero.

9. CONDICIONES DE ENTREGA DE LOS VEHÍCULOS

Debido a la situación actual y teniendo en cuenta las dificultades para la entrega de vehículos nuevos, el plazo máximo será, de 120 días y este será entregado, en la sede de la Policía municipal de Amorebieta-Etxano, sita en la calle Karmen S/N de Amorebieta-Etxano.

El Ayuntamiento recibirá el vehículo con los equipos policiales montados y habiendo pasado la correspondiente ITV, matriculado, libre de todo tipo de carga, y con toda la documentación en regla, incluyéndose las homologaciones de toda la dotación.

Como mínimo se entregará la siguiente documentación:

- Ficha técnica de ITV del vehículo en la que deberá venir registrada la homologación de las reformas realizadas.

- Manual de uso del fabricante del vehículo.

- Certificado de fabricación de elementos incorporados a los vehículos con fecha de fabricación.

- Manuales y folletos informativos del fabricante de funcionamiento y mantenimiento de equipamientos adicionales instalados.

- Dos juegos completos de llaves, que se entregaran en llaveros identificados con la matricula.

Del suministro se efectuará la correspondiente recepción formal en presencia del suministrador. Se firmará un **Acta de recepción el vehículo**, que deberá ir firmada por el suministrador y por el Jefe de la Policía Local del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano.

10. DOCUMENTACIÓN A INCLUIR EN LA OFERTA

Junto con la OFERTA ECONÓMICA se deberá presentar la siguiente documentación:

- Especificaciones técnicas del vehículo con adaptaciones y accesorios que se oferta: Catálogos, fotografías y demás información técnica acerca de las características detalladas en este pliego.
- Ficha técnica con información sobre la emisión CO2.
- Plazo de entrega.
- Garantía ofrecida y descripción del servicio post-venta incluyendo sistemas de interlocución para las reparaciones, y plazos de reparación.
- Especificaciones técnicas de mejoras en el vehículo (cámara trasera, sensores de aparcamiento, airbags de rodilla para el conductor) que se oferta: Catálogos, fotografías y demás información técnica acerca de las características.
- En general toda la documentación necesaria para evaluar los criterios de adjudicación.

AMOREBIETA-ETXANOKO UDALTZAINGOA IBILGAILU HIBRIDO EDO HIBRIDO ENTXUFAGARRI BATEZ HORNITZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza teknikoen agiri honetan aipatzen den kontratuaren xedea da ibilgailu bat eskuratzea Amorebieta-Etxanoko (Bizkaia) Udaltzaingorako, SUV motako renting modalitatean, lau urterako.

2. IBILGAILUAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK

- SUV motako hibrido entxufagarria, Euskadirako eredu bateratuaren arabera errotulatua

eta argi-zubi finkoarekin, baita atxilotuak garraiatzeko gaitua.

- Gasolina edo dieselaren errekuntza.
- Transmisio automatikoa.
- 1500 cc-ko zilindrada edo handiagoa.
- Gutxienez 130 CV-ko potentzia.
- Direkzio lagundua.
- Aire girotua – klimatizagailua.
- 4 ate eta maletategiko atea.
- Erregulatu daitekeen bolantea.
- Laino-argiak.
- Aurreko airbagak, albokoak eta errezel-airbagak.
- Aparkatzen laguntzeko aurreko eta atzeko detektagailuak.
- Bluetootha txertatuta.
- Korronte-hargune osagarria aurreko partean eta maletategian.
- Egunez zirkulatzeko argiak LED teknologiarekin.
- Edozein kasutan, matrikula berriko ibilgailu bat izango da.

3. EKIPAMENDU OSAGARRIA: ARGIDUN SEINALEZTAPEN AKUSTIKOA

LED motako argi-zubi urdina, polizi-zerbitzuen erabilera esklusiborako diren horietakoak.

Halaber, gutxienez sei LED dituzten fokuak jarri beharko dira aurreko saretan, eta barruan sartutako sei LED dituzten lau foku hegaletan (bi aurreko hegaletan eta bi atzeko hegaletan). Foku guzti hauek urdinak izango dira.

LED bi atzeko maletategirako, hau irekitzean automatikoki piztu beharko direnak. Urdinak izan beharko dira eta desaktibatu ahal izango dira, maletategian jarritako botoiari sakatuta.

LED motako bi linterna kargagarri, karga azkarrekoak, dagozkien kargagailuak eta seinaleztapen-konoak dituztenak, horiz. Konoek dagozkien euskarriak izango dituzte.

4. BESTE EKIPAMENDU BAT ETA EZAUGARRIAK

- Gerrialdeko errefortzuak eta/edo aurreko eserlekuak aldatzea, agenteen hornidura-elementuetara egokitzeko, gerrialdea behar bezala bermatzeko moduan, horien ohiko ekipamendua kontuan hartuta (gerrikoa eta zuzkidura-elementuak).
- Atzeko kristalak film beltzarekin.
- Tetra ekipoa instalatzea (antena, emisora, mikrofonoa).
- Karter-estalkia.

Ibilgailuan, **homologatutako atxilotuen kita** instalatu beharko da, hustubide-sistemarekin, gerrikoak desblokeatzeko sistema mekanikoarekin eta atxilotuen eremuan argiztatzeko LED tirarekin. Atxilotuaren airea agenteen airearekin ez nahasteko, aire behartua pasatzeko aireztapen-sistema bat izango du ibilgailuaren sabaian. Sistema horri ibilgailuaren aurrealdetik eragingo zaio, aginte-panelean kokatutako etengailu baten bidez.

Gela horrek ateak larrialdietan irekitzeko sistema mekaniko bat izan beharko du, bakoitzarentzat independentea.

Ibilgailua honako hauekin entregatuko da: lanparak eta ordezko fusibleak, eta kate-jokoa edo antzekoa elurretarako.

5. KANPOKO DISEINUA

Pintura eta polizia-itsasgarriak. Oinarrizko kolore zuriak, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailaren Aginduan ezarritako irizpideei jarraituz, Euskadiko udaltzaingoen ibilgailuen kanpoko bereizgarriei dagokienez. Gainera, Amorebieta-Etxanoko Udaltzaingoaren armarria eta 946300160 eta 092 telefonoak eramango dituzte.

Gauzatu aurretik, adjudikaziodunak Udalari aurkeztu beharko dio diseinua, eta Udalak baimendu egin beharko du.

6. MANTENTZE-LANEN ZERBITZUA

Mantentze-lanen eta konponketen edozein gastu estali beharko du, eta zehazki:

- Ibilgailuen mantentze integrala markaren tailer ofizialetan edo fabrikatzaileak baimendutako tailerretan (olioaren, balazta-likidoen, iragazkien eta abarren kostua eta eskulana barne). Erreferentziako tailerrak Amorebieta-Etxanotik gehienez 20 km-ra egon beharko du.
- Gastatutako piezak ordezkatzea (piezak eta eskulana).

- Matxurak konpontzea (piezak eta eskulana).
- Ordezko piezak.
- Eskulana.
- Lubrifikatzailea.
- Pneumatikoak aldatzea (40.000 km-ro)
- Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (IAT) egin behar izanez gero, esleipendunaren kontura izango dira zerbitzuaren kudeaketak eta horren ondorioz sortutako gastuak.

Ibilgailuen ezaugarriak eta ekipamendu berezia direla eta, Udaltzaingoaren Buruzagitzak, beharren arabera, 24 ordutan edo hurrengo lanegunean (jaiegunetan bada) eskatu ahal izango ditu ordezko ibilgailuak, matxura mekanikoagatik edo karrozeria konpontzeagatik. Kasu horretan, ibilgailuek antzeko ezaugarriak izango dituzte, baina salbuespena izango dira transmisio-ekipoen instalazioak, sirenak, megafonia, larrialdiko seinaleztapen optiko-akustikoa, linternak, bandalismoaren aurkako beirak eta identifikazio korporatiboa.

7. KILOMETRAJEA

Urtean 30.000 kilometroko kilometrajea kontratatuko da, eta luzatu egin ahal izango da, administrazio-klausulen agirian ezarritakoaren arabera.

8. ESKAINI BEHARREKO ASEGURUA

Automobilaren arrisku orotarako asegurua, itxia eta frankiziarik gabea, gutxienez estaldura hauekin:

- Nahitaez izan beharreko erantzukizun zibila.
- Defentsa juridikoa eta kalteen erreklamazioa: mugagabea, konpainiako abokatu eta prokuradoreekin, eta gehienez 3.010,00 € izendapen askearen kasuan.
- Aseguratutako ibilgailuaren gidariarentzako istripu-asegurua: 42.500,00 € heriotzaren estaldurarako eta 30.500,00 € baliaezintasun iraunkorrerako. Heriotza-kasuan onuraduna: hildakoaren legezko jaraunsleak. Laguntza medikoa 30.500,00 € arte (gehienez 365 egun).
- Ibilgailua lapurtzea.
- Ibilgailuak su hartzea.
- Parabrisa eta beira-plaka apurtzea.
- Bidaietako asistentzia, zero kilometrotik aurrera.

9. IBILGAILUAK ENTREGATZEKO BALDINTZAK

Egungo egoera dela eta, eta kontuan hartuta ibilgailu berriak entregatzeko zailtasunak daudela, gehieneko epea 120 egunekoa izango da, eta Amorebieta-Etxanoko Udaltzaingoaren egoitzan entregatuko da (Karmen kalea z/g, Amorebieta-Etxano).

Udalak polizia ekipoak muntatuta dituen ibilgailu bat jasoko du, eta dagokion IATarekin, matrikulatua, inolako kargarik gabe, eta dokumentazio guztiarekin, dotazio osoaren homologazioak barne.

Gutxienez, ondoko dokumentazioa entregatuko da:

- Ibilgailuaren IATaren fitxa teknikoa, non erregistratu beharko baita egindako berrikuntzen homologazioa.

- Ibilgailuaren fabrikatzailearen eskuliburua.

- Ibilgailuetan txertatutako elementuen fabrikazio-ziurtagiria, fabrikazio-data adierazita.

- Instalatutako ekipamendu osagarrien funtzionamenduaren eta mantentze-laner fabrikatzailearen eskuliburuak eta informazio-liburuxkak.

- Giltzen bi joko oso, matrikularen bidez identifikatutako giltzatakoetan entregatuko direnak.

Horniduraren harrera formala egingo da hornitzailearen aurrean. **Ibilgailuaren harrera-akta** sinatuko da, eta hornitzaileak eta Amorebieta-Etxanoko Udaleko Udaltzaingoko buruak sinatu beharko dute.

10. ESKAINTZAN JASO BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

ESKAINTZA EKONOMIKOArekin batera aurkeztu beharreko dokumentazio:

- Eskaintzen diren egokitzapenak eta osagarriak dituen ibilgailuaren zehaztapen teknikoak: Katalogoak, argazkiak eta baldintza-agiri honetan zehaztutako ezaugarriei buruzko gainerako informazio teknikoa.
- CO2-ari buruzko informazioa duen fitxa teknikoa.
- Entregatzeko epea.
- Eskainitako bermea eta saldu osteko zerbitzuaren azalpena, konponketak bideratzeko prozedura barne, baita konponketak gauzatzeko epeak.
- Eskaintzen diren Ibilgailuaren hobekuntzen zehaztapen teknikoak (atzealdeko kamara, aparkatzen laguntzeko detektagailuak, gidariaren belaun-airbagak): Katalogoak, argazkiak eta ezaugarriei buruzko gainerako informazio teknikoa.
- Orohar, adjudikazio irizpideak ebaluatzeko beharrezko dokumentazio guztia.

Fdo. digital: / Digitalki sinatua:
Udaltzain burua / Jefe de la Policía Municipal
Jose Mª Guruziaga Guerediaga
06-06-2022 09:53